

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lehendakariak hauteskundeak aurreratzea baztertu du, Nafarroa krisialditik ateratzen hasten denean ezegonkortasunik sor ez dadin

Esan duenez, orain arteko Gobernuari legegintzaldia amaitu arte eusteak "konfiantza, segurtasuna eta egonkortasuna" ekarriko ditu.

Lunes, 31 de marzo de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak hauteskunde aurreratuen deialdia baztertu du eta, esan duenez, legegintzaldia amaitu arte jarraituko du lehendakari "gobernu honekin jarraitzeak konfiantza, segurtasuna eta egonkortasuna ematen duelako". Nafarroa krisialditik ateratzen hasi den unean hauteskunde-prozesua hasteak "ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna" eragingo lituzkeela esan du.



Lehendakaria, gaur, Nafarroako Jauregian egin duen agerraldian.

"Gobernu honek lau urteko konpromisoa hartu zuen", erantsi du, eta "ez dugu amore emango orain, ez litzatekeelako onuragarria izango Komunitatearentzat", azpimarratu du.

Hitzarmen ekonomikoa eta zerga-erreforma

Lehendakariak esan du Foru Gobernuak "gogoz" lan egingo duela legegintzaldia amaitu arte, eta aurtengo urterako helburu nagusi jo ditu 2015-2019ko hitzarmen ekonomikoaren negoziazioa eta zerga-erreforma.

Lehenengoari dagokionez, estatuarekin egingo diren elkarriketetan lehentasuna bi gairi emango zaiela esan du. Alde batetik, estatuko zerga berrien traslazioa, bereziki, loteria eta apustuena, sareko jokoena, gas fluoratuena, hidrokarbuero jakinen txikizkako salmentena eta banku-gordailuena. Bigarren lehentasuna Nafarroak estatuari urtero egiten dion ekarpenetik abiadura handiko trenaren proiektuan egiten duen inbertsioa deskontatzea lortzea izango da.

Zerga-erreformari dagokionez, parte-hartze publikoaren prozesua berriki amaitu dela jakinarazi du eta konfiantza agertu du enpresaburu, aditu eta abarrekin izaten ari diren elkarriketetatik adostasun handieneko erreforma lortzeko ekarpenak ateratzea.

Horiez gain, Yolanda Barcina Lehendakariak bere kabinetek aurreikusitako beste jardura batzuk ere aipatu ditu, esate baterako,

Iberdrolaren akzioak saltzea sozietate publikoen zorra murrizteko, abalen ildo berria abian jartzea (4 milioi euroko zenbatekoa) Nafarroarentzat estrategikoak diren eremuetan enpresa-proiektuak bultzatzeko eta Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren deialdia egitea enpleguaren alorrean presazko neurriak hartzeko.

"Lanean jarraituko dugu --azpimarratu du-- Nafarroa egoera ekonomiko zail honetatik ateratzen den lehen autonomia-erkidegoetako bat izan dadin, aurrekontuak egonkortu eta enplegua sortuta, horiek baitira konturik garrantzitsuenak".

Defizit-muga betetzea

Barcinak autonomia-erkidegoen defizit-muga betetzeari buruzko datuak ere aipatu ditu, gaur eman baitu horien berri Ogasun Ministerioak. Horien arabera, Nafarroak % 1,55ekoa izan du, ezarritako % 1,3ren gainetik. Zenbateko horren aurrean, Lehendakariak argudiatu du Foru Komunitatearen defizita % 1,05ekoa izan dela. "Nafarroak defizit-muga gainditu du --esan du--. Aldea Nafarroako eta estatuko ogasuneko teknikarien zenbaketen desberdintasunek eragin dute, Foru Komunitateko kontuen konplexutasunagatik".

Horren harira, azpimarratu du Ministerioak berak Nafarroak egindako ahalegina eskertu duela eta administrazio zentralak ez duela aplikatuko zuzentzeko irizpiderik.